

BESTELAKO XEDAPENAK

SPRI-ENPRESEN GARAPENERAKO EUSKAL AGENTZIA

1999

EBAZPENA, 2024ko apirilaren 12koa, SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziako Nazioartekotze zuzendariarena, «Global Training» 2024 laguntza programaren oinarri arautzaileak onartzea, argitaratzea eta deialdia egitea ahalbidetzen duena.

SPRI-EnpresaGarapenerako Euskal Agentzia Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoa da, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren mendekoa. Euskal Autonomia Erkidegoan honako hauek sustatzera bideratutako jarduketaz arduratzen da: industria- eta enpresa-jarduera, inbertsioa, garapena, dibertsifikazioa eta industria-lehiakortasuna, berrikuntza, nazioartekotzea, Informazio eta Ezagutza Gizartearen garapena, eta enpresa arloko ekintzailatza-jarduera.

Horrekin lotuta, SPRI-EnpresaGarapenerako Euskal Agentziak Euskadiko enpresetan nazioartekotzea bultzatzera bideratutako hainbat ekintza garatu ditu. Jarduera horien artean, gure enpresen nazioarteko posizionamendua hobetzeko laguntza-programak aipatu behar dira.

Ondorioz, Laguntza Programa hau euskal gazteek atzerriko enpresetan eta erakundeetan prestakuntza praktikoa izan dezaten sustatzeko lehentasunezko helburuarekin diseinatu da.

Dirulaguntzen Erregimena Arautzen duen 2023ko abenduaren 21eko 20/2023 Legeak (DEAL) 7.2.a) artikuluan eskatzen du Lege horrek ezartzen duen dirulaguntzen kudeaketa eta esleipena hainbat printzipioen arabera egiteko, besteak beste, publizitate-printzipioaren arabera. Era berean, DEALen 8.3 artikulua ezartzen du dirulaguntza edo diruz lagundutako programa mota bakoitzaren oinarri arautzaileak argitaratu behar direla Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

Hori guztia dela eta, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– «Global Training» 2024 Laguntza Programari dagozkion oinarri arautzaileak eta deialdia onartzea. Horren edukia eranskin gisa gehitu da ebazpen honetan.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian osorik argitaratzea.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioko SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziaren Nazioartekotze Zuzendaritzari, hilabeteko epean, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke zuzenean administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, bi hilabeteko epean, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Akordio honek eragina izango du Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Bilbao, 2024ko apirilaren 12a.

SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziako Nazioartekotze zuzendaria,
MARÍA AINHOA ONDARZABAL IZAGUIRRE.

ERANSKINA

GLOBAL TRAINING 2024 LAGUNTZA PROGRAMAREN OINARRI ARAUTZAILEAK

Hazkunde adimentsu, jasangarri eta solidarioaren Europako 2020 Estrategiaren garapenak eta euskal ekonomiaren nazioartekotzea bultzatzeak prestakuntza handiagoa eta hobea behar izango dute emakume eta gizonentzako independentzia ekonomiko berdina izango duen gizarte jasangarri baterako, Europako Batzordeak 2010eko martxoaren 5ean onartutako dokumentuan jasotzen duen bezala. Ildo horretan, uste da etorkizun hurbilean EBko lanpostu guztien ehuneko handi batek goi-mailako kualifikazioak eskatuko dituela, eta gaitasunen eskuratze gehiena hezkuntza ez-formalaren bidez egingo dela, arreta berezia jarritz nazioarteko mugikortasunari, boluntariotzari, benetako lan-inguruneetako ikaskuntza praktikoa eta gazteen parte-hartze aktiboari dagokienez.

Horregatik, ekonomia irekiaren eremuan planteatzen diren etorkizuneko erronkei irtenbideak aurkitzeko, eta euskal gazteen gaitasunak, ezagutza, prestakuntza eta mugikortasuna garatzeko, lan-merkatuan sartzeko gaituz, lehen aldiz 2012an beka-programa bat abiarazi zen, EAEko gazteen nazioz haraindiko mugikortasuna sustatzeko, beren profil akademiko eta profesionalarekin lotutako jarduerak eta proiektuak egiteko atzerriko enpresa eta erakundeetan, aldezturik planifikatutako prestakuntza praktikoko plan batekin. Programa honek, aldaketa egokiekin, indarrean jarraitzen du gazteen eta euskal enpresen prestakuntza-beharrei erantzuteko.

Global Training programak aukera ematen die EAEko unibertsitateko eta lanbide-heziketako goi-mailako tituludun gazteei atzerrian lanbide-prestakuntza jasotzeko, beren espezialitate akademikora egokitutako enpresetan edo erakundeetan ordaindutako praktikak eginez. Proiektu honen bidez, EAEko gazteen nazioz gaindiko mugikortasuna sustatzen da, haien prestakuntza osatzeko eta hazkunde pertsonal eta profesionalerako aukera emateko.

Programa hau 2024ko ekitaldirako erakundearen Dirulaguntzen Plan Estrategikoan jasota dago, Administrazio Kontseiluaren 2023ko abenduaren 20ko erabakiaren bidez onetsitakoan, eta Planaren hurrengo helburua lortzen laguntzen du: «EAEko gazteen nazioz gaindiko mugikortasuna sustatzea, unibertsitate-titulua eta goi-mailako lanbide-heziketa duten gazteen profil akademiko eta profesionalarekin lotutako jarduerak eta proiektuak atzerrian egiteko.»

1. artikulua.– Xedea.

Oinarri hauen xedea da itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak emateko araubidea ezartzea «Global Training» 2024 programako beka kudeatzen dituzten erakundeei, banakakoei zein lankidetzakoei. Programa horren helburua da unibertsitate-titulazioa eta goi-mailako lanbide-heziketa duten euskal gazteei prestakuntza praktikoa ematea atzerriko enpresa eta erakundeetan.

Kudeaketa hori honako prozesu hauetan gauzatu beharko da: beketarako hautagaien deialdia eta hautaketa, praktikak gauzatzeko enpresen identifikazioa eta konpromisoa, helmugara irteteko prestakuntza, eta Global Training bekadunen arreta eta jarraipena, oinarri hauen I. eranskinean ezarritako aurreikuspenen arabera.

2. artikulua.– Deitutako beka.

Gehienez 500 «Global Training» beka izango dira, eta erakunde onuradun bakoitzak, oinarri hauetan aurreikusitako baldintzen arabera, gutxienez 50 eta gehienez 80 bekaren kudeaketa eskaini beharko du.

3. artikulua.– Baliabide ekonomikoak.

Dirulaguntza-programa honen helburura bideratutako 2024ko baliabide ekonomikoak 6.445.000 eurokoak dira, eta SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziaren aurrekontuetan horretarako ezarri diren aurrekontu-zuzkiduretatik etorriko dira. SPRIren aurrekontuak 2024rako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan sartuta daude. Zenbatekoa honela banatuko da:

2024ko ekitaldia: 3.097.500 euro.

2025eko ekitaldia: 3.347.500 euro.

Deialdi honen kontura emango diren beken zenbateko osoak ezingo du gainditu artikulua honetan esleitutako zenbatekoa.

4. artikulua.– Erakunde onuradunak eta izaera hori lortzeko eskakizunak.

1.– Oinarri hauetan jasotako laguntzen onuradun izan daitezke I. eranskinean deskribatutako «Global Training» beketarako deialdia egiten duten erakunde publiko edo pribatuak, baldin eta honako baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Merkataritza-sozietate ez izatea eta dagokion erregistroan eratuta eta inskribatuta egotea, eskabideak aurkezteko epea amaitu baino gutxienez bi urte lehenago.

b) Gutxienez bi urteko esperientzia izatea unibertsitate-prestakuntzako edo goi-mailako lanbide-heziketako proiektuak eta jarduerak egiten, eta/edo, aldi berean, gazteak lan-munduan sartzea errazteko behar diren gaitasunetan trebatzen esperientzia izatea, nazioarteko mugikortasun-programen bidez.

c) Estatutuen arabera EAE osoa jarduera-eremutat duten erakundeak izatea.

d) Nazioarteko sareren bateko kide izatea edo antzeko ezaugarriak dituzten atzerriko beste erakunde batzuekin lankidetzak-hitzarmenak edo -akordioak sinatu izana, horien bidez bermatuta gera dadin euskal gazteek praktikak egin behar dituzten atzerriko enpresa edo erakundeen hornidura.

2.– Ezingo dituzte deialdi honetan aurkezten diren dirulaguntzak jaso:

– DEALen 13. artikuluan edo 2003ko azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorren 13.2 artikuluan aurreikusten den egoeraren batean dauden erakundeek, aplikagarria den heinean.

Zehazki, eskatzaileek zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzako betebeharrak eta dirulaguntzen itzulketen betebeharrak betetzen dituztela aintzat hartuko da Ekonomia eta Ogasun Kontseilariak 2023ko otsailaren 13an emandako aginduak ezarritako kasuetan. Hala, dirulaguntzen itzulketen betebeharren ordainketan eguneratuta dagoela aintzat hartuko da zorrak zatikatuta edo atzeratuta eta bermatuta daudenean edo itzultzeko dagokion ebazpenaren aurkaratzea bertan behera uztea adostu bada.

– Europako Batzordeak laguntza bat legez kanpokoa dela edo barne-merkatuarekin bateraezina dela erabaki ondoren, laguntzak erreuperatzeko agindu baten mende daudenek.

– LGTBIfobia egin, bultzatu edo sustatzen dutenek, bihurketa-terapiak sustatu edo egitea barne, trans pertsonen berdintasun erreal eta eragingarrirako eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko otsailaren 28ko 4/2023 Legearen arabera.

– Ekoizpen, merkaturatze eta finantzaketan aritzen direnek, 14/2007 Legeak, 2007ko abenduaren 28koak, Herrialde Pobretuekiko Justizia eta Elkartasunerako Gutunarenak, xedatutakoaren arabera.

3.– Laguntza-eskaera aurkezten den unetik hasi eta emandako dirulaguntza likidatu arte bete beharko dira aurreko ataletan laguntzen onuradun izateko aipatutako eskakizunak.

5. artikulua.– Jarduerak, diruz lagun daitezkeen gastuak eta gehieneko laguntza-zenbatekoak.

1.– Oinarri hauen ondorioetarako, honako hauek jotzen dira diruz lagun daitezkeen jardueratzat: bekadunak esleitutako helmugara irten aurreko prestakuntza deitu, zabaldu, hautatu eta ematea, praktikak egiteko enpresak eta erakundeak identifikatzea eta konprometitzea, eta programaren garapena kudeatzea, hura amaitu arte.

2.– Diruz lagundu daitezkeen gastuak honako hauek izango dira:

a) Beka bakoitzari hasiera ematen dion berariazko prestakuntza emateko antolatutako ikastaroek eragindako gastuak. Ikastaro horiek 40 eta 60 ordu arteko iraupena izango dute, eta, besteak beste, honako gai hauek jasoko dituzte:

- 1.– Nola heldu atzerriko praktikari.
- 2.– Kulturen arteko negoziazioa.
- 3.– Protokoloa, estiloa eta komunikazio-teknikak.
- 4.– Talde-lana.
- 5.– Adimen emozionala.
- 6.– Berrikuntza.
- 7.– Beste batzuk, praktika motaren arabera.

Prestakuntza-gastu horiek finantzatzeko laguntzak 500 eurokoak izango dira bekadun bakoitzeko.

b) Beka bakoitzaren zuzkidura estaltzetik eratorritako gastuak. Gastu horiek hilean 1.715 euro izango dira bekadun bakoitzeko, gehienez 6 hilabetez. Partida honen kargura:

– Bekadunek 1.635 euroko zuzkidura gordina jasoko dute. Zuzkidura gordin horretatik eta dagozkion ordainketetatik, hala badagokio, dagozkion atxikipenak kenduko dira, PFEZri eta Gizarte Segurantzari buruzko arauetan ezarritakoaren arabera.

– Gainerako 80 euroekin, erakunde onuradunek enpresaren konturako Gizarte Segurantzako kotizazioen kostuei aurre egingo diete.

c) Erakunde onuradunak I. eranskinean ezarritakoaren arabera izenpetu beharko dituen aseguru-polizen ondoriozko gastuak, bekadun bakoitzak gaixotasun- eta erantzukizun zibileko eta istripu-arriskuak estaliko dituen aseguru bat izan dezan, eta azken horren osagarri izan dadin bidaiako asistentzia. Gastu horiek finantzatzeko laguntzak 600 eurokoak izango dira bekadun bakoitzeko.

d) Erakunde onuradunen «Global Training» beka-programa abian jartzeak, kudeatzeak, administratzeak, komunikatzeak eta argitaratzeak eragindako gastuak. Finantzaketarako laguntzak 1.000 eurokoak izango dira emandako beka bakoitzeko.

Bisatua herrialde jakin batean lortzeak bekadunak jaso beharreko zuzkidura gordinaren % 3tik gorako kostua badu, erakunde onuradunek partida horren gain hartu eta egotzi ahal izango dituzte gastu horiek.

Bekadunen batek uko egiten badio bekari oinarri hauetako 14. artikuluko b) apartatuan ezarritako justifikazioa egin ondoren, baina bekaduna helmugara joan aurretik edo helmugara joan ezin denean, bekaduna praktikak egiten ari den herrialdeko ezinbesteko arrazoiak direla medio eta/edo mugak itxita daudelako (beraz, beka bertan behera geratuko da), erakunde onuradunek beka bakoitzaren kudeaketari dagokion zenbatekoaren % 50 baino ez dute jasotzeko eskubidea izango.

e) Horrez gain, 3. artikuluan deskribatutako aurrekontuan kontingentzietarako 500 euroko partida bat jaso da bekadun bakoitzeko.

Partida hori bekadunen segurtasunari eragiten dioten ezinbesteko arrazoiengatik baino ez da erabiliko (osasan-gorabeherak, gerra-gatazkak, munduko krisiak), eta ustekabeko gastuak egiteko beharra sortuko da, aparteko arreta medikoa eskaintzeko, helmugako herrialdeetan bidaiak edo gastu gehigarriak egiteko edo, hala badagokio, bekadunak helmugan dauden tokitik beren jaioterrira aberriratzeko.

Partida horri gastuak egozteko, Nazioartekotzeko zuzendariaren alde aurreko baimena beharko da, eta baimendutako gastu bakoitza agiri bidez justifikatu beharko da. Kontzeptu horrengatik egindako gastuen likidazioa oinarri hauen 14. artikuluan deskribatutako hirugarren eta azken ordainketan egingo da. Partida hori erabiltzea beharrezkoa ez den kasuetan, erakunde onuradunek ez dute inolako zenbatekorik jasoko partida horrengatik.

Era berean, DEALen 31.1 artikuluan eta DLOren 29. artikuluan eta 2006ko uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuko 68. artikuluan, (horrek onartzen du DLOren araudia «DAO») ezarritakoaren arabera, onuradun batek azpikontratatu edo kontratatu egiten du, baldin eta hirugarren batzuekin diruz lagundu nahi den jarduera osorik edo partzialki egitea hitzartzen badu. Kontzeptu horretatik kanpo da onuradunak diruz lagundutako jarduera bere kabuz gauzatzeko egin beharreko gastuen kontratazioa. Hori horrela, azpikontratazioa edo hirugarrenen kontratazioa diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren % 100era iritsi ahal izango da a), c), d) puntuetan, baita kontingentziei dagozkienak ere, eta diruz lagundutako jardueren azpikontrataziorako edo hirugarren kontrataziorako aplikagarri izango dira aipatutako artikuluetan jasotako gainerako aurreikuspenak.

Horrela, DEALen 30.3 artikuluan aurreikusitakoa betez, diruz lagun daitekeen gastuaren zenbatekoak gainditu egiten baditu sektore publikoko kontratazioaren arloan indarrean dagoen araudiak kontratu txikirako ezarritako kopuruak, eta betiere hirugarrengoen kontratazioaren bat baldin badago, onuradunak gutxienez hiru hornitzailearen eskaintzak eskatu beharko ditu lana egiteko, zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa hartu aurretik, salbu eta, bere ezaugarriak bereziak izateagatik, merkatuan ez badago lana egiteko, zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko behar beste erakunde, edo gastua dirulaguntza eman baino lehen egin bada. Dirulaguntzaren justifikazioan edo eskaeran aurkeztutako eskaintzen artean aukeratzeko, efizientziaren eta ekonomiaren irizpideak hartuko dira kontuan, eta abantailarik handienak dituen proposamen ekonomikoa aukeratzen ez bada, berariaz justifikatu beharko da memoria batean.

6. artikulua.– Beste laguntza batzuekiko bateragarritasuna.

1.– Oinarri hauetan ezarritako laguntzak bateragarriak izango dira beste erakunde edo organismo batzuek helburu bererako emandako beste edozein laguntzarekin.

2.– Nolanahi ere, aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, oinarri hauen babesean emandako laguntzaren zenbatekoak ezin izango du, ez bakarka, ez administrazio edo erakunde publiko zein pribatuek emandako beste dirulaguntza edo laguntza batzuekin batera, ezta diruz lagundutako jarduera berberetarako beste edozein diru-sarrera edo baliabiderekkin batera ere, laguntzaren xede den programa garatzeko kostu osoa gainditu edo eskaeran eskatutako zenbatekoa. Kasu horretan, oinarri hauen arabera emandako laguntza soberakinari dagokion kopuruan murriztuko da.

7. artikulua.– Eskaerak eta dokumentazioa aurkezteko epea.

1.– Oinarri hauek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean hasiko da laguntza-eskaerak aurkezteko epea, eta 2024ko ekainaren 3an bukatuko da.

2.– Oinarri hauetatik eratorritako eskabideak, errekerimenduak, jakinarazpenak eta gainerako kudeaketak bitarteko elektronikoen bidez egingo dira. Eskabidea helbide elektronikoa honen bidez eskuratu eta beteko da: www.spri.eus/GlobalTraining

3.– Eskabideekin batera honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- a) Eskabidea sinatzen duen pertsonaren NANA.
- b) Erakunde eskatzailearen identifikazio fiskaleko txartela.
- c) Erakundea eratzeko eskriturak eta eskatzailearen ordezkari-txartelarenak.
- d) Emandako kontuaren banku-titulartasunaren ziurtagiria.
- e) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla egiaztatzen duten ziurtagiriak, erakunde eskatzaileak aipatutako agiriak eskatzeko baimena ukatzen badu; izan ere, laguntza-eskaerak berariazko baimena ematen dio SPRIri zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela egiaztatzeko.

f) Oinarri hauen 4.b) artikuluan eskatzen den esperientzia egiaztatzen duen dokumentazioa, garatutako proiektuak, deialdiak edo hitzarmenak identifikatuz.

g) Nazioarteko sareren bateko kide direla edo antzeko ezaugarriak dituzten atzerriko beste erakunde batzuekin lankidetzak-hitzarmenak edo lankidetzak-akordioak sinatu dituztela egiaztatzen duten agiriak, 4.d) artikuluan adierazitakoa betetzeko.

h) «Global Training» beka-programa garatzeko proiektua, honako hauek barnean hartuta:

I.– Deialdia egitea proposatzen duen Global Training beken kopurua, oinarri hauen eranskinetan aurreikusitako baldintzen arabera.

II.– Hautatutako gazteei eman beharreko prestakuntza-plana, praktikak egingo diren enpresan edo erakundean sartu aurretik. Prestakuntza-plan horrek, nahitaez, 40 eta 60 ordu arteko ikastaroak barne hartuko ditu, eta oinarri hauetako 5. artikuluan zehazten den oinarritzko programara egokituko dira.

III.– Proiektuaren garapena bermatuko duten ekintzen kronograma, deialdiaren arabera.

IV.– Aurrekontu osoa, aurreikusitako diru-sarrerak eta gastuak, eta proiektuan sartutako ekintzen garapena bilduko dituena.

V.– Erakunde eskatzaileak proiektua garatzeko dituen giza baliabideak, baliabide materialak eta/edo esperientzia.

VI.– Proiektuaren garapenean inplikaturako erakunde juridikoko pertsonen curriculum vitae.

II., III. eta IV. eranskinak behar bezala beteta aurkeztu beharko dira. Bestela, eranskin horiek zuzendu egingo dira 8. artikuluan adierazitakoaren arabera.

i) Erakundeek lankidetzaren modalitatean eskaera bateratua aurkezten badute, lankidetzaren erakunde guztiek sinatutako lankidetzaren barne-akordioa aurkeztu beharko da. Akordio horrek zehatz-mehatz azaldu beharko du nola laguntzen duen bikaintasuna lortzen proiektuaren garapenean fase guztietan; publikitatea eta deialdia, hautaketa, prestakuntza, praktika onenak bilaketa eta prozesu osoaren monitorizazioa. Era berean, akordio horretan adierazi beharko da dirulaguntzaren portzentajezko banaketa erakundearen artean, eta Basque Trade & Investment (Nazioartekotzeko Euskal Agentzia) eta SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziaren aurrean egin beharreko kudeaketa guztietarako solaskide bakarra zein den adieraziko da. Eskaeran parte hartzen duten erakunde guztiek erantzutuko dute.

j) Proiektu hori bera gauzatzeko beste erakunde publiko zein pribatu batzuei eskatutako edo/eta haiek emandako dirulaguntzak, bertan adieraziz laguntza hori noiz eskatu zen, eta, hala badagokio, zein erakundeek eman zuen, zein programaren baitan eta laguntzaren zenbatekoa.

k) Oinarri Arautzaile hauen Eranskinean ageri den normalizatutako ereduaren edukiaren arabera egindako erantzukizunpeko adierazpena.

4.– SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziak laguntza-eskabidean aurkeztutako proiektua behar bezala ulertu eta ebaluatzeko behar beste dokumentazio eta/edo informazio eskatu ahal izango die erakunde eskatzaileei.

5.– Ez da nahitaezkoa izango Basque Trade & Investment (Nazioartekotzeko Euskal Agentzia) eta/edo SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziaren esku dauden indarreko dokumentuak aurkeztea. Erakunde eskatzaileak dokumentazio hori aurkeztu badu, eskabidean adierazi beharko da zer egunetan eta zer organo edo bulegotan aurkeztu zen.

6.– Laguntza-eskaera, aurkeztu beharreko dokumentazioarekin batera, hautatutako hizkuntza ofizialean aurkez daiteke. Halaber, laguntza-eskaeratik eratorritako jardueretan, eta prozedura osoan, erakunde eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da, Euskararen Erabilera Normalizatutako Oinarriko 10/1982 Legean, azaroaren 24koan, ezarritakoaren arabera.

8. artikulua.– Onartzea eta zuzentzea.

SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziak ikusten badu aurkeztutako dokumentazioan akatsen bat, hutsegiteren bat edo zehaztasun-faltaren bat dagoela, erakunde eskatzaileari jakinaraziko dio, eta 10 eguneko epea emango dio akatsa zuzentzeko, eta ohartaraziko dio, hala egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela. Epe hori igaro eta zuzenketarik egin ez bada, bertan behera utziko dela aitortzeko ebazpena emango da.

9. artikulua.– Esleipenaren prozedura.

1.– Erakunde onuradunek bekak kudeatzeko dirulaguntzak norgehiagoka-prozeduraren bidez emango dituzte. Horretarako, aurkeztutako eskabideak baloratuko dira, lehentasun-hurrenkera bat ezartzeko, 10. artikuluan ezarritako irizpideen arabera.

2.– Dirulaguntzak lehentasun-ordenari jarraituz esleituko zaizkie 10. artikuluan ezarritako gutxieneko puntuazioa lortu duten erakundeei, harik eta deialdi honi esleitutako zuzkidura ekonomikoa agortu arte. Horrela, ez da bermatzen, inola ere, gutxieneko puntuazioa lortzen duten eskatzaile guztiak onuradun izango direnik.

10. artikulua.– Balorazio-irizpideak eta haztapen-faktoreak.

Balorazio-irizpideak hurrengo taulan zehaztutakoaren arabera haztatuko dira. Onuradun izateko, gutxienez 60 puntu lortu behar dira.

Irizpidea	Haztapena
1) Praktiken argitasuna. Honako hauei buruzko informazioa jaso beharko du: Jarduerari, sektoreari, enpresaren edo erakundearen jatorriari eta tamainari buruzko informazioa, eskatutako bekadunaren profila, praktika egingo den helburu geografikoari buruzko informazioa, bekadunak egin beharreko zereginen deskribapena.	Gehienez 25 puntu
Eskainitako praktiken % 75 baino gutxiago argi eta zehatz deskribatuta daude eta goian adierazitako alderdiak jasotzen dituzte.	0 puntu
Eskainitako praktiken % 75, gutxienez, argi eta zehatz deskribatuta daude eta goian adierazitako alderdiak jasotzen dituzte.	5 puntu
Eskainitako praktiken % 80, gutxienez, argi eta zehatz deskribatuta daude eta goian adierazitako alderdiak jasotzen dituzte.	10 puntu
Eskainitako praktiken % 85, gutxienez, argi eta zehatz deskribatuta daude eta goian adierazitako alderdiak jasotzen dituzte.	15 puntu
Eskainitako praktiken % 90, gutxienez, argi eta zehatz deskribatuta daude eta goian adierazitako alderdiak jasotzen dituzte.	20 puntu
Eskainitako praktiken % 95, gutxienez, argi eta zehatz deskribatuta daude eta goian adierazitako alderdiak jasotzen dituzte.	25 puntu
2) Praktikak enpresetan eta erakundeetan, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana Euskadi 2030 lehentasunezko arloetan (ZTBP 2030 https://www.euskadi.eus/pcti-2030/web01-a2pcti30/eu/)	Gehienez 20 puntu
≥ % 50 Lehentasunezko Arloetan	20
Gutzizkoaren % 25. ≤ Lehentasunezko eremuak gutzizkoaren < % 50	15
Lehentasunezko arloak gutzizkoaren < % 25	0
3) Praktikak atzerriko enpresa eta erakundeetan	Gehienez 20 puntu
Atzeritarrak gutzizkoaren ≥ % 80	20
Atzeritarrak gutzizkoaren < % 80	0
4) Bekaz baliatzeko aldien luzapena (eskaintzen % 90i aplikatzen zaio)	Gehienez 30 puntu
Luzapena ≥ 6 hilabete	30
5 hilabete ≤ Luzapena < 6 hilabete	25
4 hilabete ≤ Luzapena < 5 hilabete	20
3 hilabete ≤ Luzapena < 4 hilabete	15
2 hilabete ≤ Luzapena < 3 hilabete	10
1 hilabete ≤ Luzapena < 2 hilabete	5
Luzapenik gabe	0
5) Erakundeen arteko lankidetzak, lankidetzako barne-akordioaren bidez egiaztatua.	5
Guztira	100

Irizpideen deskribapena:

1.– Praktiken argitasuna (gehienez 25 puntu): Jarduerari, sektoreari, enpresaren edo erakundearen jatorriari eta tamainari buruzko informazioa, eskatutako profila, praktika egingo den helburu geografikoari buruzko informazioa, bekadunak egin beharreko zereginen deskribapena.

2.– ZTBP 2030 lehentasunezko arloetan kokatutako enpresetan eta erakundeetan egindako praktiken ehunekoa (20 puntu): Aurkeztutako praktika guztien ehunekoaren arabera puntuatuko da, baldin eta praktika horiek ZTBP 2030 lehentasunezko arloetan kokatutako sektore bateko enpresetan eta erakundeetan egiten badira, eta programaren lehentasunak Eusko Jaurlaritzaren 2021-2024 Industria Garatzeko eta Nazioartekotzeko Planarekin lerrokatuko dira.

3.– Atzerriko enpresa eta erakundeen ehunekoa (20 puntu): Erakundeei aukera ematen zaie euskal enpresekin eta estatuko erakundeekin lankidetzak akordioak sinatzeko, baina programaren helburua bekadunek beste enpresa-kultura batzuk ezagutzea eta haietatik ikastea denez, atzerriko enpresa eta erakundeetan aurkeztutako praktika guztien ehunekoaren arabera puntuatuko da.

Euskal enpresetan eta estatuko erakundeetan egindako praktiken % 20 gainditzen bada, punturik ez jasotzeaz gain, gehieneko % 20 hori gainditzen dutenak eta unibertsitateko tituludunak behar dituztenak luzapenik gabeko praktika gisa zenbatuko dira artikuluko honen 4. ataleko balorazioa egitean.

Lanbide Heziketako tituludunak behar dituzten euskal enpresetan eta Estatuko erakundeetan egiten diren praktiken kasuan, kolektibo horrek praktikak atzerrian egiteko dituen aukerak unibertsitateko tituludunenak baino txikiagoak direnez, ez dira zenbatuko atzerriko enpresetan egiten diren praktiken ehunekoa kalkulatzeko.

Irizpide hori ebaluatzeko, Euskadiko edo Estatuko enpresen filialak, sukurtsalak eta ordezkariak-bulegoak atzerrikoak ez diren enpresatzat hartuko dira, bai eta Estatuko erakundeen atzerriko ordezkariak eta/edo ordezkariak ere.

4.– Praktikaldiaren luzapena erakunde onuradunaren, enpresaren edo erakundearen kontura (gehienek 30 puntu): Gutxienez 6 hilabeteko praktika-aldia luzatzea positiboki baloratuko da. Luzapen horren gehieneko epea beste 6 hilabetekoa izango da. Lehenengo 6 hilabeteetako gastu guztiak programaren aurrekontuaren kontura finantzatuko dira, eta luzapen-aldiko gastu guztiak, berriz, praktika egiten den erakunde onuradunaren, enpresaren edo erakundearen kontura. Enpresek helmugan egindako lan-kontratazioak praktikaldien luzapen gisa puntuatuko dira, eta eskaintako kontratazio-hilabeteak baloratuko dira. Luzapenean, bekadunek ez dute loturarik izango eta ez dira Basque Trade & Investment, SPRI edo Eusko Jaurlaritzaren ardurapean egongo.

Balorazioa egiteko, enpresak edo erakundeak oinarri hauen III. eranskinean dagoen aurrekontuaren ereduak sinatu beharko du.

Azken deialdietako esperientziak erakutsi du diziplina akademiko batzuetarako ezinezkoa dela praktiken luzapenak lortzea, eta diziplina guztiak programa honetan eskaintza egoki eta interesgarriekin sartzeko, aurkeztutako eskaintzen % 10 balorazio-irizpide horren mende zegoen erabakidatzen. Hauek dira salbuespen honetan jasotako diziplinak: Ingurumen-zientziak, biologia, artea, artearen historia, arte ederrak, geografia eta historia, kultura-kudeaketa, filologia, itzulpen-gintza eta interpretazioa, psikologia, kirola eta gorputz-hezkuntza, musika eta ostalaritza eta jatetxeak.

5.– Erakundeen arteko lankidetzak eraginkorra eta erreala (5 puntu): Puntuatu egingo du hainbat erakundeek beren proiektuak elkarrekin aurkeztu dituztenean, elkarrekin lankidetzan. Lankidetzaren helburua proiektuaren garapenaren fase guztietan bikaintasuna lortzea izan behar da; publikitatea eta deialdia, hautaketa, prestakuntza, jardunbide onenak bilatzea eta prozesu osoa monitorizatzea.

Artikulu honetan jasotako irizpideak hobeto ebaluatzeko, III. eranskina – Eskaintako praktika bakoitzaren xehetasuna – eta IV. eranskina – Eskaintako praktiken laburpen-taula osatuta aurkeztuko dira.

11. artikulua.– Eskaerak aztertu eta ebaluatzea. Erakunde laguntzailearen eginkizunak.

1.– Balorazio Batzordeari dagokio aurkeztutako eta onartutako eskabideak aztertzea eta ebaluatzea. Balorazio-batzorde hori honako hauek osatuko dute:

– Basque Trade & Investment-eko (Nazioartekotze Euskal Agentzia) Enpresa eta Talentuentzako Finantza Laguntzen arduraduna, lehendakari gisa jardungo duena: Iñaki Ezkurra. Ordezkoa: Usoa Aguirre, Basque Trade & Investment-eko (Nazioartekotze Euskal Agentzia) Kanpoko Sareko zuzendaria.

– Basque Trade & Investment-eko (Nazioartekotzeko Euskal Agentzia) programetako teknikaria. Batzordekide gisa jardungo du: Enbor Barruetabeña Rivallo. Ordezkoa: Jesús Mari Cantón Martínez, Basque Trade & Investment (Nazioartekotze Euskal Agentzia) programaren teknikaria.

– Iker Arruabarrena Fernández, SPRIren Nazioartekotze Programen arduraduna, idazkari gisa jardungo duena. Ordezkoa: Enara Corredera. Basque Trade & Investmenteko Giza Baliabideen teknikaria (Nazioartekotze Euskal Agentzia).

Basque Trade & Investment (Nazioartekotze Euskal Agentzia) izango da SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziaren erakunde laguntzailea, eta eginkizun hauek izango ditu:

- a) Bidalitako dokumentazio teknikoa aztertzea.
- b) Egindako gastu hautagarriak behar bezala gauzatzen diren ikuskatzea.
- c) Beken garapenarekin lotuta egoki iritzitako egiaztapenak egitea, eta onuradunek eskatzen zaien informazio osagarri guztia aurkeztu beharko dute.
- d) Egindako ikuskapenen txostenak egitea.
- e) SPRIri gerta daitezkeen gorabeheren berri ematea.
- f) Oinarri hauetan jasotako guztiak.

2.– Lehiaketa egin ahal izateko eskatzen diren betekizunetan eta oinarri hauetan ezarritako balorazio-irizpideetan oinarrituta, Balorazio Batzordeak, proiektuak aztertu eta kalifikatu ondoren, aurkeztutako eta onartutako eskabideak zerrenda beherakorrean ordenatuko ditu, lortutako puntuen arabera, eta horietako bakoitzari proposatutako praktiken kopurua adieraziko du, deialdi honi esleitutako zuzkidura ekonomikoa agortu arte.

Berdinketa gertatuz gero, 10. artikuluko 4. irizpidean, beka baliatzeko aldien luzapenari buruzkoan, puntuaziorik handiena lortu duen erakundea gailenduko da. Berdinketak jarraitzen badu, 10. artikuluko 1. irizpidean, praktiken argitasunari buruzkoan, puntuaziorik handiena lortu duena gailenduko da. Hala ere, berdinketak jarraitzen badu, irizpide hauek hartuko dira kontuan, adierazitako ordenan: 2, 3 eta 5.

3.– Batzordeak hartutako erabakian oinarrituta, erakunde onuradunei beka emateko proposamen bat idatziko da, eta organo kudeatzaileari (SPRIren Nazioartekotze Arloa) helaraziko zaio.

12. artikulua.– ebazpena, errekursoak, ebazteko eta jakinarazteko epeak, jakinarazteko modua eta publizitatea egiteko prozedura.

1.– Deialdi honetan aurkeztutako eskabideak prozedura bakar batean izapidetuko dira, eta prozedura hori ebaztea SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziako Nazioartekotze zuzendariari dagokio.

2.– Ematen den ebazpenean zehaztuko da eskatutako laguntzak eman diren edo, hala badagokio, ukatu diren. Laguntzen kasuan, erakunde onuradunaren izen soziala, onartutako «Global Training» beka-proiektuaren zenbatekoa, emandako dirulaguntzaren zenbatekoa eta finantzatuko diren beken kopurua adieraziko dira. Ukatzuz gero, erakunde eskatzailearen izena jasoko da, bai eta ukatzeko arrazoiak ere.

3.– Aurreko paragrafoan aipatutako ebazpenak amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, haren aurka, berraztertze errekurtsoa aurkez diezaiokete erakunde interesdunek SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziaren Nazioartekotze Zuzendaritzari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete zuzenean Bilboko administrazioarekiko auzien epaitegietan, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

4.– Ebazpena banan-banan jakinaraziko zaie erakunde interesdunei. Hala ere, jende guztiak horren berri izan dezan, programaren webgunean ([www.spri.eus/Global Training](http://www.spri.eus/Global%20Training)) eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da erakunde onuradunen zerrenda, bakoitzak kudeatu beharreko beka-kopurua eta bakoitzari emandako zenbatekoa adierazita.

5.– Prozedura ebazteko eta ebatzitakoa erakunde interesdunei jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, laguntzen deialdiari buruzko ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Epe hori igaro eta ebazpenik jakinarazi ez bada, dirulaguntzaren eskabidea ezetsi egin dela ulertu beharko dute interesdunek.

13. artikulua.– Erakunde onuradunen betebeharrak.

Oinarri hauen arabera emango diren dirulaguntzen onuradun izango diren erakundeek honako artikulua hauetan ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte: DEALen 14. eta 42. artikuluetan jasotakoak, eta, aplikagarria den heinean, DLOren 14. eta 46. artikuluetan jasotakoak, eta zehazki eta xede mugatzailerik gabe, hauek:

- a) Dirulaguntzaren esleipena oinarritzen duen jarduera egitea edo egoera horretan egotea.
- b) Eskakizunak eta baldintzak betetzen dira egiaztatzea SPRIren aurrean eta dirulaguntzak jasotzeko edo gozatu ahal izateko beharrezkoa den jarduera egitea.
- c) Emandako Dirulaguntzak onartzea. Alde horretatik, laguntza emateko ebazpena jakinarazi eta 10 egun baliodun igaro ondoren, laguntzari berriaz eta idatziz uko egin ez bazaio, laguntza onartu egin dela ulertuko da.
- d) Emandako laguntza jarduketa-plana aurrera eramateko erabiltzea, baita esleipenaren xede izan ziren gastuak finantzatzeko ere.
- e) Hala badagokio, SPRIk egin beharreko egiaztapen-jarduketak baimentzea edo Eusko Jaurlaritzako Kontrol Ekonomikorako Bulegoak, Euskadiko Kontu Publikoen Auzitegiak edo estatuko zein erkidegoko beste edozein kontrol-organo eskudunek jasotako dirulaguntzen gainean egin beharreko beste edozein egiaztapen eta kontrol finantzario baimentzea, aurretik aipatutako zeregin horiek egiteko beharrezkoa den edozein informazio emanez.
- f) SPRIri eta Basque Trade & Investment-i (Nazioartekotze Euskal Agentzia) berehala jakinaraztea laguntzak edo dirulaguntzak edota beste edozein diru-sarrera edo baliabide eskatu edo jaso dutela hemen araututako dirulaguntzen xede berbererako beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuetatik.

Jakin eta berehala jakinarazi beharko da, eta, nolana ere, jasotako funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen edo justifikatzeko unean.

g) Dirulaguntza emateko garaian kontuan hartutako edozein gorabehera objektibo zein subjektibo aldatu dela jakinaraztea SPRIri.

Jakin eta berehala jakinarazi beharko da, eta, nolana ere, jasotako funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen edo justifikatzeko unean.

h) Esleipenaren ebazpena eman aurretik eta ordaintzerako unean, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak zein dirulaguntzen itzulketei lotutako betebeharrak egunean daudela egiaztatzea, ogasunaren arloan eskumenak dituen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren saileko titularrak emandako aginduan ezartzen den moduan.

i) Erakundearen aiza erajuridikoa dela eta liburukontulariek halaezarriz gero, diligentzia-erregistroak eta behar bezala ikustatutako gainerako dokumentuak aurkeztea pertsona onuradunari dagokion merkataritzako legediak eta sektoreko legediak ezartzen duen terminoetan, baita dirulaguntzen oinarri arautzaileek eskatzen dituzten kontabilitateko egoerak eta erregistroak ere, egiaztatzeke eta kontrolatzeko jarduketak behar bezala egitea bermatzeko.

j) Jasotako funtsen aplikazioaren dokumentu justifikatzaileak gordetzea, dokumentu elektronikoak barne, egiaztatzeke eta kontrolatzeko jarduketak egin ahal izateko.

k) Garatutako jardueraren edo jarduketaren gaineko diruz lagundutako kostuaren soberakina edo jasotako funtsak itzultzea, DEALen 36. artikuluan jasota dauden kasuetan.

l) Hizkerak eta irudiek ikuspegi interseksionala errespetatzea eta, batez ere, sexu- eta genero-ikuspegia kontuan hartzea, dirulaguntza jasoko duen jarduerak edo proiektuak eskatzen dituen dokumentu eta material guztietan.

m) Herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzea eta, batez ere, euskara erabiltzea diruz lagundutako jarduketarekin lotutako argitalpenetan, iragarkietan eta publizitatean.

n) Onuraduna DEALen 48.1 artikuluan aurreikusita dauden egoeretan baldin badago, deslokalizaziorik ez egitea.

ñ) Praktikak atzerrian egingo diren enpresa edo erakundeekin lankidetzak-akordio espezifikoak sinatzea, praktika garatzeko beharrezkoak diren baldintza materialak eta teknikoak ezartzeko. Bekadunak eskatutako herrialdean egonaldia egiteko bisatua edo bestelako baimena lortzea ezinbesteko baldintza denean, erakunde onuradunak helburuko enpresa edo erakundeei eskatu beharko die alde aurretik ziurta dezatela herrialde horrek eskatutako baldintzak betetzen dituztela.

o) «Global Training» beken deialdia egitea, oinarri hauen I. eranskinean adierazitako ezaugarriekin, eta emandako beka bakoitza kudeatzea, hautaketatik hasi, eta praktikak amaitu arte. Prozesu horretan, onuradunak ziurtatu beharko du eskatutako profila betetzen duten hautagai guztiek aukera izango dutela beren intereseko eskaintza guztietara eskabidea aurkezteko, eta berariaz debekatuta egongo da alde aurretik hautatutako pertsona jakin bati zuzendutako praktikak eskaintzea.

«Global Training» beken dibulgazio-elementu guztietan, web-orrietan, prentsako edo aldizkarietako iragarkietan, bai eta deialdi-, hautaketa-, emakida- eta jarraipen-dokumentu guztietan ere, honako hauek agertu behar dute: «Global Training» beka-programa identifikatzen duen logoa, Basque Trade & Investment-en (Nazioartekotze Euskal Agentzia) logoa, SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziaren logoa eta Eusko Jaurlaritzaren logoa.

Era berean, adierazitako elementu eta dokumentuen testuetan berariaz aipatu behar da, behar beste aldiz, beka horiek Basque Trade & Investment (Nazioartekotze Euskal Agentzia), SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentzia eta Eusko Jaurlaritzaren ekimena direla. Azkenik, aipatutako elementu eta dokumentuen testuetan, Global Training programa hainbat erakunde onuradunen bidez kudeatzen dela ere aipatu beharko da, eta beharrezkoa izango da Basque Trade & Investment-en webgunerako esteka bat sartzeari, bertan beken baterako eskaintza kontsulta daitekeela azalduz.

p) Basque Trade & Investment (Nazioartekotzeko Euskal Agentzia) eta SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziaren aurrean egin beharreko kudeaketa guztietarako solaskide bakarra izendatzea.

q) Basque Trade & Investment (Nazioartekotzeko Euskal Agentzia) erakunde laguntzaileari hautaketa-prozesuko elkarrizketen egutegi osoaren berri ematea, bere ordezkariak elkarrizketetara behar besteko denboraz joan ahal izateko. Halaber, hautaketa-prozesu horren testuinguruan, ingeleseko ahozko eta idatzizko probak egin beharko zaizkie eskatutako hizkuntza-maila egiaztatzen duen titulazio ofizialik aurkezten ez duten hautagaiei, 4 urtetik beherako antzinasunarekin. Proben metodologia SPRIk onartu beharko du.

r) Aldez aurretik ezarritako prestakuntza-ikastaroak ematen direla ziurtatzea.

s) Beka emateko agiria egitea, eta hura jakinarazi eta argitaratzea, I. eranskineko V. artikuluko 4. eta 5. paragrafoetan adierazten den bezala.

t) Beka bakoitzarekin lotutako aseguruak kudeatzea eta bekadunei Gizarte Segurantzaren alta ematea.

u) Emandako «Global Training» beka bakoitzaren jarraipena egitea, bekadunak programan egon bitartean ezarritako baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko. Horretarako, bekadun bakoitzari eta praktikak egingo diren enpresa edo erakundeei dagozkien txostenak eskatuko zaizkie. Jarraipen horren testuinguruan, Basque Trade & Investment (Nazioartekotzeko Euskal Agentzia) SPRIren filiala den sozietateari hileroko jakinarazi beharko dizkio bekadunen egoeran izandako aldaketak (helmutuak irteerak, uko egiteak, Euskadira itzultzeak, azken orduko aldaketak), hil bakoitzaren lehen bost egun baliodunetan.

v) Larrialdietarako harremanetarako telefono bat gaitzea, Basque Trade & Investment (Nazioartekotzeko Euskal Agentzia) eta SPRIren eskura egongo dena.

w) Emandako «Global Training» beken kopurua eta horien ezaugarriak dokumentu bidez justifikatzea. Horrekin batera, beken garapena zehazten duen laburpen-txostena aurkeztuko da.

x) Bekadunei bakoitzari dagokion zuzkidura ordaintzea. Ordaintzea hori hiru ordaintzetan egingo da: % 50eko ordaintza bat praktikak hasi aurretik, beka eman ondoren, % 40ko beste ordaintza bat hilean, praktiken iraupenaren erdiari dagokiona, eta gainerako % 10a praktikak amaitzean eta eskatzen zaizkion dokumentu guztiak aurkezten direnean ordainduko da.

y) Lankidetzaren modalitatean hainbat erakundek eskaera bateratua aurkezten badute, proiektuaren kudeaketa bakarra eskaini beharko dute, eta ezin izango da bekarik banatu erakunde laguntzaileen artean, ezta horiek bereizita kudeatu ere.

z) Ezinbesteko kasuetan edo justifikatutako kasuetan izan ezik, eskaintako bekaren luzapen-aldiak errespetatzea, oinarri hauetan aurreikusitakoaren arabera.

14. artikulua.– Laguntzen ordainketak eta erakunde onuradunek emandako laguntzaren justifikazioa.

1.– Oinarri hauen babesean «Global Training» beka-programaren erakunde onuradunei emandako laguntzak 13. artikuluan adierazitako epea igaro ondoren ordainduko dira, berariaz uko egin ezean, honela:

a) Lehenengo ordainketa, emandako zenbatekoaren % 10ekoa (kontingentzien partida izan ezik), laguntza onartu ondoren.

b) Bigarren ordainketa, emandako zenbatekoaren % 40koa (kontingentzien partida izan ezik), hau aurkeztu ondoren:

– Bekadunen zerrenda: Zerrenda horretan, gutxienez, izena, abizenak, NANA, jaiotze-data, generoa, telefonoa, helbide elektronikoa, ikasketak, hitz egindako hizkuntza, esleitutako enpresa, herrialdea eta hiria jasoko dira. Horrez gain, Basque Trade & Investment (Nazioartekotze Euskal Agentzia) erakunde laguntzaileak behar beste informazio osagarri eskatu ahal izango du bekadunei eta esleitutako enpresei buruz.

– Banakako beka emateko agiriak, hautatutako bekadun bakoitzak sinatuta, I. eranskineko V. artikuluko 4. eta 5. paragrafoetan adierazitakoaren arabera.

– Hautagaiek aurkeztutako ingeleseko titulu baliodunen ziurtagirien kopia edo, halakorik ezean, ingeleseko proban lortutako kalifikazioaren ziurtagiria.

Bekadunen zerrenda aurkezteko azken eguna 2024ko abenduaren 31 izango da. Ezin izango da beka berririk eman bekadunen zerrenda aurkeztu ondoren, ezta 2024ko abenduaren 31ren ondoren ere.

c) Hirugarren eta azken ordainketa bat, dirulaguntza honen kargura sei hilabeteak amaitu eta justifikatzean. Gainerako % 50a ordainduko da kontzeptu guztiengatik, kontingentziak barne, halakorik izan bada. «Global Training» beken kudeaketatik eratorritako gastuei aurre egiteko azken ordainketa osoa edo zati bat aldeztu aurretik ordaindu behar dutela egiaztatzen duten erakunde onuradunek eskaera egin ahal izango diote Basque Trade & Investment (Nazioartekotzeko Euskal Agentzia) erakunde laguntzaileari, eta 180.000 eurotik gorako aurrerakinatarako banku-abala aurkeztu beharko dute, baita diruz lagundutako jarduerak gauzatzeko beharrezko finantzaketa gisa eskatzen den ordainketa aurreratuaren beharra justifikatu ere. Aurrerakinak 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera soilik eskatu ahal izango dira; Nazioartekotze Zuzendaritzak ebatziko ditu eskabidean justifikatutako inguruabarren arabera, eta gehienez ere 2 hilabete epean ordainduko dira, ematen direnetik zenbatzen hasita, eta, hala badagokio, bermea eratu ondoren.

2.– Justifikazioak SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziaren aurrean aurkeztu beharko dira, proiektua amaitzen denetik hilabete epean, deialdi honen aurrekontuaren kargura, eta gehienez ere 2025eko azaroaren 30ean.

3.– Egiaztagirien artean, honako hauek egongo dira gutxienez:

– Bekadun bakoitzak egindako zereginen eta jardueren txosten zehatza.

– Bekaren garapenari buruzko txosten orokorra, enpresa eta bekadunen zerrendarekin.

– Erakunde onuradunak bekadunei egindako banku-transferentzien egiaztagiria.

– Gizarte Segurantzari egindako ordainketen egiaztagiria (langileen zerrenda izenduna edo alden eta baje agiriak).

- Kontratutako aseguruaren egiaztagiriak.
- Prestakuntza-ikastaroak antolatzeko kostuaren egiaztagiriak.
- Kudeaketa-, administrazio-, komunikazio- eta publizitate-gastuen egiaztagiriak.
- Dirulaguntzen Lege Orokorraren 31.3 artikulua aplikatuz, erakunde onuradunak eskatu behar izan dituen hiru aurrekontuak.

– Praktika bakoitzean (praktikaldiko kontratua edo antzekoa) eskainitako luzapena egin izanaren agiri bidezko frogak, eta enpresak eskainitako konpromisoa bete ez badu, enpresak eta erakundeak egindako txostenak, arrazoiak zehaztuta.

Faktura guztiak BEZik gabe egotzi beharko dira, erakunde onuradunak BEZik gabeko jarduerak bakarrik egiten dituenetan izan ezik; kasu horretan, dagokion ogasunaren ziurtagiriaren bidez justifikatu beharko da.

Ezin da ez auto-fakturaziorik, ez erakunde laguntzaileen arteko fakturaziorik egin.

Erakunde onuradunaren barneko langileek emandako prestakuntza, kudeaketa, administrazioa, komunikazioa edo publizitatea egotziz gero, honako hauek zehaztu beharko dira: pertsonen izenak, zeregin zehatzak, emandako orduak eta horien ordu-kostua.

Prestakuntza emateko erakunde onuradunaren barne-aretoak erabiltzeagatik gastuak egotziz gero, ordu kopurua eta aukera-kostua justifikatu beharko dira, erakundearen areto-erreserben tarifa ofizialak aurkeztuta.

Ez da ordainketarik egingo onuradunak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekin lotutakoak betetzen ez baditu edo itzultze-bidez kotasunaren ebazpenagatik zorduna bada.

15. artikulua.– Laguntzak aldatzea.

1.–Aurreikusita dago dirulaguntza ematen duen organoak emandako dirulaguntza edo baldintzak aldatzea erabakitzea, ofizioz edo interesdunak eskatuta, baldintza hauek betetzen direnean:

a) Alde baten instantziari erantzunez gero, pertsona onuradunak jakin bezain pronto komunikatzea eta, nolana ere, jasotako funtsei emandako aplikazioaren justifikazioaren aurretik, DEALen 14.e artikuluan jasotako betebeharra betez.

b) Zenbatekoa ez handitzea.

c) Egindako jarduera edo jokabidea edo egingo dena oinarri arautzaileen xedearen barruan egotea.

d) Aldaketa justifikatzen duten baldintzak onuradunaren borondatearen arabekoak ez izatea.

e) Aldaketa sustatu duten elementu eta baldintza berriak hasieran eman izan balira, dirulaguntza ukatzeko modukoak ez izatea eta aldaketa ez izatea hasieran onartutako proiektua erabat aldatzeko bezain handiak.

f) Hirugarrenen eskubideak ez urratzea.

2.– Onuradunak emandako dirulaguntza osoa edo partziala jaso badu, eta aldaketarekin zenbatekoa txikitzen bada, DEALen 40. artikuluan aurreikusitakoa jarraituko da.

16. artikulua.– Aldaketak praktiken eskaintzan.

1.– Erakunde eskatzaileek erreserba-praktikak aurkeztu ahal izango dituzte praktika nagusiak ordezkatzeko. Erreserba-praktika horiek praktika nagusiak ordezteko erabili ahal izango dira, salbuespenezko kasuetan, profil jakin batzuk ez daudela egiaztatzen bada, edo ordezkapenak egiteko beharrezkoak diren bisak edo baimenak lortzeko ezintasunaren, mugak ixtearen, herrialdeko segurtasun-baldintzak okertzearen, xede-enpresa edo -erakundeen aldebakarreko baliogabetzeen edo sor daitezkeen ezinbesteko beste edozein gairen ondoriozko balizko ezeztapenen aurrean.

2.– Bisatua lortzea ezinezkoa delako edo bestelako arrazoi justifikatuak daudelako, erakunde onuradunek, enpresekin ados jarrita, praktikak egingo diren herrialdea eta/edo hiria bakarrik aldatu nahi badute, erreserba-praktiketara jo gabe egin ahal izango dute, eta gainerako gai garrantzitsuak aldatu gabe mantendu beharko dituzte.

3.– Erreserbako praktikak aurkeztu nahi dituzten erakunde eskatzaileek IV. eranskinean – Eskainitako praktiken laburpen-koadroa – praktika nagusietarako eskatzen den informazio bera aurkeztu beharko dute, erreserbakoak eta nagusiak bereiziz dagokion zutabean.

4.– Salbuespenezko kasuetan, gutxienez erreserbako 10 praktika aurkeztu dituzten erakunde onuradunek praktika nagusien ordezkariak ez diren praktikak egin ahal izango dituzte, eta praktika nagusietan eskainitako plazen kopurua ere handitu ahal izango da. Kasu horietan, ezinbestekoa izango da praktika nagusien ordezkariak erabiltzea ezinezkoa dela egiaztatzea eta Basque Trade & Investment (Nazioartekotzeko Euskal Agentzia) erakunde laguntzailearen onespena izatea.

5.– Praktika nagusien ordezkariak, oinarri hauetako 10. artikuluan deskribatutako irizpide baloragarrietan antzeko ezaugarriak dituzten praktikak bakarrik egin ahal izango dira.

6.– Aldaketa-proposamen guztiak Basque Trade & Investment (Nazioartekotze Euskal Agentzia) erakunde laguntzaileari jakinarazi beharko zaizkio, bekadunen zerrenda aurkezteko azken eguna baino gutxienez 10 egun baliodun lehenago, aztertu ahal izateko. Beharrezkoa izango da onespena jasotzea aldaketak egin ahal izateko.

17. artikulua.– Ez-betetzeak.

1.– Ikusiko balitz erakunde onuradunak ez duela bete araudi honetan, aplikatzekoak diren gainerako arauetan eta laguntzen ezaugarrien ezaugarriak baldintzetakoren bat, emandako laguntza eskuratzeko eskubidea galduko du eta SPRIri itzuli beharko dizkio ordura arte kobratu dituen laguntzen diru kopuruak gehi dagozkien legezko interesak, eta behar balitz, legezko jarduketak abiaraziko dira diru kopuru horiek itzul ditzan.

2.– Edonola ere, artikulua honetan aurrez ikusitako eraginetarako ez-betetzea izango da honako hau:

a) SPRIren baimenik gabe, laguntzaren eskaeran eta dokumentazio osagarrian jasotako jarduerak aldatzea. SPRIri ez jakinaraztea laguntza emateko garaian aztertutako baldintzak aldaraziko dituen proiektuaren gauzatzean gertatutako edozein aldaketa. Horrek, eragin hauetarako, ez-betetzea eragingo du. Aldaketak baimendu ahal izango dira, horiek SPRIri eskatu bazaizkio eta erakunde onuradunak justifikatu baditu (ahal den neurrian), proiektuan aplikatu aurretik, eta baldin eta Programaren helburu diren jardueren eta xedeen izaera hutsaltzen ez bada.

b) Gastu hautagarriak epe barruan ez justifikatzea edo Programa honetan eta laguntza emateko ezaugarrien ezaugarriak ez betetzea.

c) Diruz lagundutako proiektua betetzeko epeak gainditzea, betiere aldatzeko epea aldatzeko edo luzatzeko baimenik eman ez bada.

d) Laguntza eskuratzea Programa honetan ezarritako baldintza eta eskakizunak edo laguntza emateak berekin zekartzan baldintzak bete gabe.

e) Programan edo laguntza emateko ebazpenean aurreikusitako kontrol-neurriak ez onartzea edo horien garapena oztopatzea.

f) Proiektua beste zerbaitera desbideratzea edo laguntzak emateko ebazpenean ezarritako beste edozein betebeharrak ez betetzea.

g) Dirulaguntzen Lege Orokorraren 37. artikuluan, DAOn 91tik 93ra bitarteko artikuluetan eta DEALen aurreikusitako arazoak.

h) Emandako beken % 50 gutxienez ez esleitzea, oinarri hauetan aurreikusitako baldintza eta epeetan.

3.– SPRIri dagokio ez-betetzea egiaztatzeke espedientea hasi, izapidetu eta ebaztea.

4.– Ez badira betetzen deialdi honetan eta aplikatzekoak diren gainerako arauetan jasotako betekizunak (DEALeko 51. artikulua araberak, enpresa-deslokalizazioaren aitortzea barne) edo, hala badagokio, dirulaguntza emateko ebazpenean ezartzen direnak, dirulaguntza ezeztatu egingo da ez-betetze espedientea ireki ondoren eta SPRIri dirulaguntza edo berandutze-interesak itzuli beharko zaizkio. Itzulketa horiek Zuzenbide Publikoaren diru-sarrerak izango dira, DEALen ezarritakoaren arabera; edonola ere, dagozkion lege-ekintzak eta zigorrak jaso ditzake. SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziako Nazioartekotze Zuzendaritzari dagokio laguntzak ezeztatzeke eta, hala badagokio, partzialki edo guztiz itzularazteke espedienteak abiarazi eta ebaztea.

5.– Ezarritako baldintzak partzialki betetzen badira, eta betiere, onuradunaren jarduketak konpromisoak asebetetzen dituela egiaztatzen bada, dirulaguntza ordainduko da partzialki edo, hala badagokio, partzialki itzuliko da, eta kalkulatzekoan kontuan hartuko da egindako jardueraren proportzioa, guztizkoaren gainean. Nolanahi ere, onuradunak kobratzeko eskubidea duen kopuru partzialaren zenbatekoa bat etorriko da emandako dirulaguntzaren behar bezala justifikatutako zenbatekoarekin, justifikazioa egiaztatu eta erakunde esleitzaitzaileak onartu ondoren.

6.– Era berean, programaren xede den jardueraren kostua gainditzeko duen laguntzaren zatia itzuli beharko da, beste laguntza batzuk metatzeagatik gainfinantzaketa gertatzen denean, laguntza kobratu ondoren. Kasu horretan, itzuli beharreko zenbatekoa zehaztuko da gertaera hori adierazteke eta itzulera erabakitzeke emango den ebazpenean.

7.– Halaber, bekari dagokion laguntza itzuli beharko da, baldin eta bekaren luzapen-epea ez bada betetzen % 50etik gorako ehunekoan, ezinbesteko arrazoirik edo behar bezala justifikatutako arrazoirik izan gabe.

8.– Aldi boluntario horretan itzulketarik egiten ez bada, premiamendu-bideari ekin ahal izango zaio, aplikagarria den legezko araudian xedatutakoaren arabera.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.– Aplikatzeko den araudia.

Programa honi araudi hau aplikatuko zaio:

1.– Dirulaguntzen Erregimena Arautzen duen 2023ko abenduaren 21eko 20/2023 Legea.

2.– Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta Lege hori garatzen duen Erregelamendua (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua) dirulaguntza arloko oinarritzko legeriari dagokion guztian.

3.– Abenduaren 17ko 698/1991 dekretua, zeinaren bidez arautzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargura emandako dirulaguntzen berme eta ordainketen araubide orokorra, eta zeinetan finkatzen diren berorren kudeaketan parte hartzen duten erakunde kolaboratzaileen baldintzak, erregimena eta betebeharrak.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.

Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan (aurrerantzean, DBLO), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko Datuak Babesteko 2016/679 Erregelamendu Orokorrean (aurrerantzean, DBEO) eta datu pertsonalak babesteko gainerako araudi aplikagarrian ezarritakoarekin bat etorritz, jakinarazten da emandako datuak SPRIk tratatuko dituela eta haren Tratamendu Jardueren Erregistroan sartuko direla.

Tratamendu horren helburua, deialdiaren interes publikoan eta parte hartzeko eskabidean oinarritua, eskatutako laguntzaren espedientea kudeatzea da. Datu pertsonalak tratatzeko oinarri juridikoa da SPRIk duen interes publikoa, SPRI Enpresa Garapenerako Euskal Agentzia sortzeko estatutuetan ezarritako helburuak betetzeko.

Informazio hori gaian eskumena duen Administrazio Publikoari eta SPRI Taldeko enpresei laga ahal izango zaie.

Laguntza emateko espedientea izapidetzen den bitartean eta legez eska daitekeen epean gordeko dira datuak, legezko betebeharrak bete ahal izateko.

Interesdun guztiek eskubidea izango dute datuak zuzentzeko edo ezabatzeko, tratamendua mugatzeko, datuen eramangarritasunari aurka egiteko edo tratamendu automatizatuan soilik oinarritutako erabaki baten xede ez izateko, bai eta datuak babesteko araudi aplikagarrian aurreikusitako beste edozein eskubide ere, eskubide horiek aplikagarriak direnean, honako helbide elektroniko honetara idatziz bidalita: lopd@spri.eus. Era berean, interesdunak Datuak Babesteko gure ordezkariarekin harremanetan jarri ahal izango dira, idatzizko komunikazioaren bidez, helbide elektroniko honetan: dpd@spri.eus.

Era berean, interesdun orok du edozein erreklamazio aurkezteko eskubidea dagokion kontrol-agintaritzan, eta SPRIren kasuan, Datuak Babesteko Euskal Agintaritza izango da: www.avpd.euskadi.eus.

SPRIk Datu Pertsonalen Babeserako esparruan egiten duenaren inguruko informazio gehigarriaren eta xehakatuaren berri izateko, jo <https://agenda.spri.eus/es/aviso-legal/> web-orrialdeko pribatutasun-politikara.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziak oinarri hauei buruz hartzen dituen erabaki guztiak administratiboak dira eta, beraz, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa da jurisdikzio eskuduna.

Bilbao, 2024ko apirilaren 12a.

SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziako Nazioartekotze zuzendaria,
MARÍA AINHOA ONDARZABAL IZAGUIRRE.

I. ERANSKINA

«GLOBAL TRAINING» BEKA PROGRAMAREN OINARRIAK

I.– Helburua.

«Global Training» beka-programaren xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko gazteen nazioz haraindiko mugikortasuna sustatzea, beren profil akademikoarekin eta profesionalarekin lotutako jarduerak eta proiektuak atzerrian egiteko, aldez aurretik planifikatutako prestakuntza praktikoko plan batekin. Horretarako, Basque Trade & Investment-ek (Nazioartekotzeko Euskal Agentzia) eta SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziak programa hori garatzeko behar diren laguntza ekonomikoak antolatzen dituzte erakundeentzat, unibertsitateko eta goi-mailako lanbide-heziketako titulazioa duten gazteek, erakunde horiek hautatu eta prestatutakoek, programaren erregulazioaren esparruan, praktikak egin ahal izan ditzaten atzerriko enpresa eta erakundeetan. Eranskin honetan gehitutako oinarriek jasotzen dituzte horien erregimenak.

II.– «Global Training» beken edukia.

1.– Programari atxikitako erakunde arduradunek honako beka hauek emango dituzte:

a) Prestakuntza-ikastaro bat, bekadun guztientzat nahitaezkoa, 40 ordutik 60 ordura bitartekoa, deialdi honen oinarrietan zehazten dena gutxienez, eta beken erakunde arduradunak, laguntza-programaren onuradunak, emango duena, praktikak hasi aurretik egin beharrekoa.

b) Atzerrian gutxienez 6 hilabeteko eta gehienez 12 hilabeteko egonaldi praktikoa egitea enpresa edo erakunde laguntzaile batean. Praktikak irauten duen bitartean, bekadunek aurrez aurreko nahitaezko modalitatean beteko dituzte beren eginkizunak, eta enpresako langileek lagunduta egon beharko dute une oro.

2.– Bekadun izaera eskuratzeko, dagokion erakunde arduradunak beka eman izanaren agiria egin beharko du.

III.– «Global Training» beken onurak eta mugak.

1.– Guztira 500 beka eskainiko dira.

2.– Programaren esparruko bekadunek onura hauek izango dituzte:

a) Doako prestakuntza-ikastaro bat, 40 eta 60 ordu artekoa, praktikak hasi aurretik. Beken ardura duen erakundeak antolatu eta ordainduko du, eta bekadunak nahitaez parte hartu beharko du; bestela, emandako beka galduko du.

b) Hilean 1635 euroko zuzkidura ekonomiko gordina, helmugako herrialdera joateko, mantenturako, ostaturako eta, behar izanez gero, bisei eta txertoei dagozkien gastuak estaltzeko. Zuzkidura gordin horretatik eta dagozkion ordainketetatik, hala badagokio, dagozkion atxikipenak kenduko dira, PFEZari eta Gizarte Segurantzari buruzko arauetan ezarritakoaren arabera.

c) Erantzukizun Zibileko eta Istripuetako arriskuen estaldurak eta azken horren osagarria, Bidaiako Laguntza. Erantzukizun Zibileko Polizak aseguratutako bekaren garapenean hirugarrenei eragindako kalteen ondorio ekonomikoak estali beharko ditu.

Istripu-polizak honako estaldura hauek bermatuko ditu: heriotza, ezintasun iraunkor absolutua, osoa eta partziala baremoaren arabera, eta bidaiak-laguntzako polizak aseguratutako helmugako herrialdean izan duen istripua eta/edo gaixotasuna (pandemiak barne) bermatuko du.

Poliza horien eremu geografikoa mundu osora zabaldu beharko da.

3.– Beka emateak eta baliatzeak ez du inolako kontratu- edo estatutu-harremanik sortuko bekadunaren eta beken erakunde arduradunaren artean: Basque Trade & Investment (Nazioartekotzeko Euskal Agentzia), SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentzia, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa edo praktikak egiten diren enpresa edo erakundeak.

IV.– «Global Training» bekak eskuratzeko baldintzak.

1.– «Global Training» bekak eskuratu nahi dituzten pertsonak baldintza hauek bete eta egiaztatu beharko dituzte:

a) Administrazio-egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan izatea, eskabideak aurkezteko epea ireki aurreko 12 hilabetetik gorako antzinasunarekin, edo aurreko 10 urteetan jarraitutako 5 urtetik gorako antzinasunarekin.

b) Graduak unibertsitate-titulua edo Goi Mailako Lanbide Heziketa. Atzerrian lortutako tituluak onartuko dira, baldin eta agintaritzak eskudunak emandako homologazioarekin edo baliokidetasunarekin batera badatoz.

c) Praktikak egiten diren enpresak edo erakundeak eskatutako profilerak egokitzea.

d) 2024ko urtarrilaren 1ean 30 urte beteta ez izatea.

e) Ingelesa menderatzea. Gutxienez B2 maila eskatuko da unibertsitate-ikasketa ofizialtako Graduak Titulazioetarako, eta B1 maila Goi Mailako Lanbide Heziketarako. Horretarako, izangaiak ez badu eskatutako hizkuntza-maila egiaztatzen duen titulazio ofizialik, 4 urtetik beherako antzinasunarekin, ahozko eta idatzizko proba bat egingo zaio, eta hor bere ezagutzak zehaztuko ditu. Izangaiak eskatutako hizkuntza-eskakizunaren pareko ingeles-ezagutzak dituela egiaztatu beharko du.

f) Beka onartzen den unean eguneroko bizitzako jarduerak mugatzen dituen gaixotasunik ez izatea edo beka behar bezala garatzea eragozten duen muga fisiko edo psikikorik ez izatea.

g) Antzeko prestakuntza-helburua duten unibertsitateko tituludunentzako laguntza edo beka hauen edo beste batzuen onuradun ez izatea, baldin eta haien ibilbidean aukera eman badute atzerrian praktikak egiteko, 6 hilabetez edo gehiagoz nazioarteko enpresa edo erakundeetan. Zehazki, beka hauek baliatzeko, bateraezina da Global Training beken, BEINT beken, ICEXen edo beste administrazio autonomiko batzuen beken, merkataritza-ganberen, EBko merkataritza-sustapeneko erakundeen eta antzeko beste erakunde batzuen onuradun izatea.

h) Global Training praktika garatuko den enpresan edo erakundeetan lan egin ez izana edo praktikatzen egin ez izana.

i) Indarrean dauden xedapenek ezartzen dituzten zerga-betebeharrak edo Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea.

j) Ezingo dute oinarri hauetan araututako bekarik eskatu dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzeko eragozten duen zehapen administratibo edo penalen bat duten eskatzaileek, ez eta horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik dutenek ere, sexu-bereizkeriagatiko debekuak barne, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetatik seigarrenean xedatutakoaren arabera.

k) Ezin izango dira onuradun izan Dirulaguntzen Erregimena Arautzen duen 2023ko abenduaren 21eko 20/2023 Legeak (DEAL) 13. Artikuluan edo Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan ezarritako egoeraren batean dauden pertsonak.

2.– Aurreko paragrafoan jasotako baldintzak beken ardura duen erakundearen aurrean egiaztatuko dira, honela:

a) Jaiotza-data egiaztatzen duen dokumentazioa (NAN, jaiotza-agiria, edo hori modu frogagarrian egiaztatzen duen beste edozein).

b) Curriculum vitae.

c) Administrazio-egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duela egiaztatzen duen dokumentazioa, artikulua honetan zehaztutakoarekin bat datorrena.

d) Gradu unibertsitate titulazio ofiziala edo Goi Mailako Lanbide Heziketako titulazioa honako agiri hauetako baten bidez egiaztatuko da:

– Titulua.

– Titulua eskatu izanaren ordezkagiria, titulua emateko eskubideak ordaindu izanaren egiaztagiriarekin.

– Ikasketa-espeditentean jasotako nota, dagokion titulazioko proba osoa gainditu duela eta titulua lortzeko eskubideak ordaindu dituela adierazten duena.

Atzerrian lortutako tituluekin batera, agintaritzaren eskudunak emandako homologazioa edo baliokidetasuna aurkeztu beharko da.

e) Eskatutako hizkuntza-maila egiaztatzen duen titulu ofiziala, 4 urte baino gutxiagoko antzintasuna duena, edo, bestela, egiaztatzeko egingo den ahozko eta idatzizko probaren emaitza.

f) Erantzukizunpeko adierazpena:

– Beka eskatzen den unean eguneroko bizitzako jarduerak mugatzen dituen gaixotasunik ez izatea edo beka behar bezala garatzea eragozten duen muga fisiko edo psikikorik ez izatea.

– Antzeko beken onuradun ez izatea, artikulua honetan ezarritakoaren arabera.

– Dirulaguntzak itzultzeko betebeharrarekin lotutako ordainketak egunean dituela.

– Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea.

3.– Izangaia praktikak egingo diren enpresak edo erakundeak eskatutako profilerak egokitzen dela egiaztatzeko, Hautaketa Epaimahaiari elkarrizketa egingo zaio, eta hark baloratuko du.

V.– «Global Training» beketarako hautagaiak hautatzeko prozesua.

1.– Beka-eskabidea aurkezteak oinarri hauetan xedatutakoa onartzea dakar.

2.– Beketarako hautagai bakoitzak eskabide bakarra aurkeztu ahal izango du programari atxikitako erakunde onuradun baten aurrean. Betebehar hori betetzen dela bermatzeko, Basque Trade & Investment (Nazioartekotzeko Euskal Agentzia) SPRIren sozietate filialak beken ardura duten erakunde guztietan aurkeztutako eskabide guztiak egiaztatuko ditu. Hautagai batek eskaera bat baino gehiago aurkeztu badu, hautaketa-prozesutik kanpo geratuko da.

3.– Beken ardura duen erakunde bakoitzak egingo du hautaketa, honako prozesu honetan oinarrituta:

a) Beka-programaren deialdi publikoa, bete nahi diren beken kopurua, beka bakoitzaren profila eta helmuga jasoko dituen, eta gutxienez hilabeteko epea izango duena, egiten den lehenengo iragarkitik zenbatzen hasita, eskabideak formalizatzeko eta aurreko IV. atalean zerrendatutako egiaztagiria aurkezteko.

b) Aurkeztutako dokumentazioa osorik dagoela egiaztatzea, eta, bestela, interesdunei eskatzea gehienez ere hamar eguneko epean egin dezaten.

c) Curriculum vitae aztertzea eta titulazioa, prestakuntza osagarria eta esperientziak edo praktikak balioestea, berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-irizpide orokorren arabera.

d) Ingeleseko proba, ingeleseko titulu ofiziala dutela egiaztatu ez duten izangaiantzat, gehienez ere 4 urteko antzintasuna badute.

e) Banakako elkarrizketa Hautaketa Epaimahaiarekin. Izangaiaren profila praktikak egingo diren atzerriko enpresak edo erakundeak eskatutakoarekin bat datorren baloratuko du epaimahaiak.

f) Hautaketa-epaimahai bakoitza gutxienez beken deialdia egin duen erakundeko bi kidek osatuko dute. Programan lankidetzan parte hartzen duten erakundeen kasuan, beharrezkoa izango da elkarrizketa bakoitzean gutxienez bi lankidetzako erakundetako ordezkariak egotea. Horrez gain, Basque Trade & Investment (Nazioartekotzeko Euskal Agentzia) SPRIren sozietate filialaren ordezkari bat ere egon daiteke.

4.– Hautaketa-prozesua amaitu ondoren, deialdia egin duen erakundeak beka emateko dagokion agiria emango du. Agiri horretan ezarriko da zein herrialdetan egingo diren praktikak, zein egunetan eta zein erakundetan, bekaren zuzkidura, egin beharreko lanak eta egonaldi praktikoaren funtzionamendu onerako garrantzitsutzat jotzen diren gai guztiak.

5.– Beka emateko agiria hautatutako pertsonen jakinaraziko zaie. Beken ardura duen erakunde bakoitzak prozesuan parte hartu dutenen zerrenda orokorra argitaratuko du, hautatuak izan diren ala ez adieraziz.

6.– Esleitutako bekaren baldintzak aldatzea.

a) Bekadunei emandako beka herrialde bakoitzak eskatutako bisatuak edo baimenak lortzearen mende egongo da. Bekadunari egotzi ezin zaion arrazoiren batengatik ezin badira bisatu edo baimen horiek lortu, bekaren ardura duen erakundeak praktika beste helmuga batean egitea eskaini ahal izango dio bekadunari.

b) Beka betetzeko baldintzak mehatxupearan geratzen badira bekaren ardura duen erakundeari, enpresari edo erakundeari egotz dakiokkeen arrazoiren batengatik, edo helmugako lekuan segurtasuna larriki aldatu edo mehatxatzeagatik, Basque Trade & Investmentek (Nazioartekotzeko Euskal Agentzia) eta/edo SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziak (SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentzia) beken ardura duten erakundeei agindu ahal izango diete eragindako bekadunen helmuga berria betiko edo aldi baterako alda dezatela. Salbuespen gisa, bekadunari esleitutako helmuga berria Euskadin kokatu ahal izango da, eta zereginak telelanaren modalitatean garatzeko aukera ere egongo da.

c) Aurreko ataletan deskribatutako egoeretan dauden bekadunei helmuga berri bat esleitzea ezinezkoa dela eta zereginak telelanaren bidez egitea ezinezkoa dela egiaztatzen den ezohiko kasuetan, beken ardura duten erakundeek, Basque Trade & Investmentekin (Nazioartekotzeko Euskal Agentzia) eta SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziarekin (SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentzia) adostuta, beka bertan behera utzi ahal izango dituzte amaitzeko ezarritako eguna baino lehen.

VI.– «Global Training» beka baten onuradunen betebeharrak.

«Global Training» programako beka baten onuradunek betebeharrak hauek izango dituzte:

- a) Emandako beka onartzea. Ildo horretatik, beka eman zaiola jakinarazi eta 5 eguneko epean ez badu dirulaguntza emateko agiria sinatzen, eskaerari uko egin diola ulertuko da.
- b) Helmugako herrialdean praktikak hasi aurreko prestakuntza-ikastarora joatea, eta irakasleekin eta ikaskideekin jarrera kooperatiboa izatea une oro.
- c) Erakunde, enpresa eta erakunde laguntzaileek beka osoan ezarritako osasun-neurriak errespetatzea.
- d) Helmugako herrialdeak eskatutako bisa, txertoak edo baimenak lortzea bertara joan aurretik.
- e) Helmugako enpresa eta erakunde laguntzaileen laneratzeko epeei eta helburuari, ordutegiari eta lan-egutegiari buruzko jarraibideak onartzea eta betetzea, edo bekaren helburuak betetzera bideratutako beste edozein jarraibide. Praktikak irauten duen bitartean, bekadunaren ordutegia eta lan-egutegia enpresa edo erakunde laguntzailearenera egokituko dira, eta astean gehienez 40 ordu ezarriko dira.
- f) Bekaren berezko jardueretarako dedikazio eskusiboa, ordaindutako beste jarduerarik egin gabe eta erakunde, enpresa eta erakunde laguntzaileen funtzionamendu-arauak betez bekak irauten duen bitartean.
- g) Praktikak egiten dituen enpresak edo erakundeak agintzen dizkion zereginak egitea, aldeztu aurretik ezarritako edo adostutako lan-planaren esparruan.
- h) Hiru hilean behin praktiken garapenari buruzko txostenak egitea eta bidaltzea, bai eta bekaren ardura duen erakundeak eskatzen dion informazioa ere.
- i) Helmugako herrialdera iristean kontsulatuan edo enbaxadan erregistratzea, beka-aldian bizilekua finkatzeko.
- j) Bekaren ardura duen erakundeak ezartzen dituen egindako lanaren ebaluazioetan parte hartzea. Ebaluazio horietan, Basque Trade & Investment (Nazioartekotzeko Euskal Agentzia) SPRIren sozietate filialaren ordezkari batek parte har dezake.
- k) Bekadun izateari utziz gero, soberan jasotako zenbatekoak itzultzea. Itzuli beharreko zenbatekoa kalkulatzeko, bekadun egonaldi praktikorako aurreikusitako epearen eta hura estaltzeko esleitutako diru-zuzkiduraren arteko erlazio proportzionala zehaztuko da, eta jasotako zenbatekoa egindako egonaldiari dagokiona baino handiagoa bada, bekaren erakunde arduradunari itzuli beharko zaio jasotako soberakina.
- l) Beken ardura duten erakundeek ezarritako jarraibideei jarraiki, atzerriko herrialdeetara egindako bidaien berri ematea, bai praktikarekin zerikusia duten arrazoiengatik, bai arrazoi pertsonalengatik, aseguru-poliza eguneratzeko eta, horrela, estaldura bermatzeko. Basque Trade & Investment-ek (Nazioartekotzeko Euskal Agentzia) eta/edo SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziak herrialde edo eskualde jakin batean arriskugarritasuna dagoela egiaztatzen badute, bekadunen nazioarteko mugikortasuna mugatu ahal izango da.
- m) Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak laguntzen zertarako fiskalizatzeko dituzten eginkizunak betez eskatzen dieten informazio guztia ematea.
- n) Dirulaguntzen Erregimena Arautzen duen 2023ko abenduaren 21eko 20/2023 Legeak (DEAL) 14. artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko 2003ko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikuluan ezarritako beste edozein kasu betetzea.

VII.– Beken ardura duten erakundeen betebeharrak bekadunei dagokienez.

«Global Training» beka-programako beken ardura duten erakundeak aurreko III. atalean adierazitako onurak erabat betetzeaz arduratzen dira, eta, ildo horretan, honako betebeharrak hauek dituzte:

- a) Bekadunari egonaldi praktikoaren aurreko prestakuntza ematea.
- b) Praktikak atzerrian egingo diren enpresa edo erakundeekin lankidetzak-akordio espezifikokoak formalizatzea. Hitzarmen horietan, bekadunak praktika garatzeko beharrezkoak diren baldintza materialak eta teknikoak ezarriko dira, hala nola praktika egiteko lekua, praktikaren iraupena, adostutako lan-plana eta funtsezkotzat jotzen diren gai guztiak.
- c) Bekaduna gaixotasun- eta istripu-arriskuez eta aberriratze-gastuez eta hirugarrenetik erantzukizun zibilaz estaliko duen aseguru-poliza kontratatzea.
- d) Bekaren diru-zuzkidura ordaintzea, ordainketa-erregimen honen arabera:
 - 1) Lehenengo ordainketa, egonaldi praktikoa hasi aurretik emandako bekaren zuzkidura ekonomikoaren % 50ekoa.
 - 2) Bigarren ordainketa, bekaren zuzkidura ekonomikoaren % 40koa, egonaldi praktikoen iraupenaren erdia betetzen den hilean.
 - 3) Egonaldi praktikoa amaitu ondoren geratzen den zenbatekoaren hirugarren eta azken ordainketa, egonaldiaren azken balantzeari buruzko txosten bana jaso ondoren. Txosten horiek bekadunak eta bekaren enpresa edo erakunde hartzaileak aurkeztuko dituzte.

VIII.– Bekadun izateari uztea.

Bekadun izaera, bekaren programa amaitzen denean edo bekaren erakunde arduradunaren onuradun izaera galtzen denean, honako arrazoi hauetakoren batengatik ere iraungi ahal izango da:

- a) Bekadunak uko egitea.
- b) VI. artikuluan deskribatutako betebeharrak ez betetzea.
- c) Beka ezeztatzea, V. artikuluko 6. paragrafoko c) apartatuan adierazitakoa betez gero.
- d) Erakunde, enpresa edo erakunde laguntzaileak praktikak alde aurretik amaitutzat jotzea, bekadunari egotz dakioken arrazoiren batengatik. Enpresa edo erakunde laguntzaileak praktikak alde aurretik amaitutzat jotzen baditu bekadunari egotzi ezin zaion arrazoiren batengatik, erakunde onuradunak hilabeteko epea izango du ordezkapen-enpresa edo -erakunde bat aurkitzen saiatzeko. Epe hori amaituta, beste aukerarik aurkitu ez bada, bekadun izateari utziko zaio.
- e) Helmugako herrialdean praktikak hasi aurreko prestakuntza-ikastaroko bi jarduera edo klase baino gehiagotara ez joatea justifikatu gabe.
- f) Justifikaziorik gabe bi klase edo jarduera baino gehiagotara ez joatea helmugako herrialdean praktikak hasi aurreko prestakuntza-ikastaroan. Hutsegitetzat hartuko da puntualtasun-faltaren ondorioz ikasgelara ez joatea eta ez sartzea.

2024ko apirilaren 25a, osteguna

- g) V. artikuluko 6. atalari jarraiki egindako helmuga-aldaketak ez onartzea.
- h) VII. i) artikulua araberan mugikortasunari ezarritako murrizketei men ez egitea.
- i) DLOren 37. artikuluan, DAOren 91tik 93ra bitarteko artikuluetan eta DEALen aurreikusitako kasuren bat gertatzen bada.



II. ERANSKINA

GLOBAL TRAINING BEKAK - 2024

AURKIBIDEA

● ESKAERA ORRIAK

- I.- ESKAERA
- II.- ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA
- III.- ERAKUNDEAREN DESKRIBAPENA
- IV.- PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

2024ko apirilaren 25a, osteguna



II. ERANSKINA

GLOBAL TRAINING BEKAK - 2024

I- ESKAERA

1. ESKATZAILEA:

Erakunde eskatzailea:
Legezko ordezkaria:
Sexua:
Kargua:
Izapidetze-arduraduna:
Kargua:
Harremanetarako telefonoa:
Harremanetarako helbide elektronikoa:

2. BERRIKUNTZA PROIEKTUA

Deitu beharreko beken kopurua	
-------------------------------	--

Antzeko programen kudeaketan izandako esperientzia:

	Proiektuan sartutako jarduerak
1	
2	
3	
4	
5	
6	
7	
8	
9	
10	
11	
12	
13	
14	
15	
16	
17	

.....(e)n, 2024.....(e)ko.....ren.....(e)an
 Sin. Legezko ordezkaria



II. ERANSKINA

GLOBAL TRAINING BEKAK - 2024

II.- ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

Jaun/andrea:
Erakundearen izenean:

NANa:
IFZ:

HONAKO HAU ADIERAZTEN DU HAREN ERANTZUKIZUNPEAN:

I. Programa honen xede den laguntza jasotzeko indarrean dagoen araudiak ezartzen dituen baldintzak betetzen dituela; zehazki, honakoak:

(i) Laguntza-eskabide honez gain, honako proiektu hauetarako eskabidea aurkeztu duela edo/eta laguntza lortu duela erakunde publiko edo pribatu hauetan, data hauetara arte:

Eskaera-data	Erakundea	Eskatutako kontzeptua	Egiteke/Onartuta/Ukatuta	Laguntzaren zenbatekoa (€)

Beste erakunde batzuei helburu bererako dirulaguntzak eskatu bazaizkie, laguntza horien eskabidearen kopia aurkeztu beharko da. Dirulaguntza horiek emanda badaude, horien ebazpenaren kopia.

Halaber, konpromisoa hartzen du ekitaldi honetan erakunde publiko edo pribatuetan programa honi eskatutako proiektuetarako egiten dituen laguntza-eskaera guztien berri emateko.

(ii) Enpresa ez deslokalizatzeko konpromisoa hartzen duela, DEALen 49. artikuluan adierazitako baldintzetan.

(iii) Gainfinantzaketarik ez egiteko konpromisoa hartzen duela, DEALen 9.4h) artikuluan adierazitako baldintzetan.

(iv) DEALen 13. artikuluan aurreikusitako egoeraren batean ez egotea.

(v) 2003ko azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorren 13.2 artikuluan aurreikusitako egoeraren batean ez egotea.

(vi)- Europako Batzordeak laguntza bat legez kanpokoa dela edo barne-merkatuarekin bateraezina dela erabaki ondoren, laguntzak erreuperatzeko agindu baten mende ez egotea.

(viii) Armarik ez produzitzea, merkaturatzea edo finantzatzea, Herrialde Pobretuekiko Justizia eta Elkartasunerako Gutunari buruzko abenduaren 28ko 14/2007 Legeak ezarritakoarekin bat etorritik.



II. ERANSKINA

GLOBAL TRAINING BEKAK - 2024

II. I. atalean egindako adierazpena betetzen dela ziurtatzen duen dokumentazioa duela eta Administrazioaren esku jarriko duela hark eskatutakoan; eta aurrez aipatutako betebeharrak betetzen jarraitzeko konpromisoa hartzen duela, haren eskubidearen aitortzari edo egikaritzeari dagokion denbora-tartean zehar.

III. Badakiela Adierazpen honi laguntzen dion edo Adierazpenaren barruan agertzen den datu, adierazpen edo dokumenturen bat guztiz zuena ez bada, faltsua bada edo hutsak baditu, edo horiek Administrazio eskudunaren aurrean aurkezten ez baditu, ezingo duela eraginpeko eskubidea edo jarduera gauzatu, gertakari horien berri izaten den unetik bertatik; gainera, dagozkion erantzukizun penalak, zibilak edo administratiboak ezarriko zaizkio, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69. artikuluko 4. atalean ezarritakoaren arabera.

Goian jasotako adierazpenen edukia onartzea.

.....(e)n, 2024.....(e)ko.....ren.....(e)an

Sin. Legezko ordezkaria

2024ko apirilaren 25a, osteguna



II. ERANSKINA

GLOBAL TRAINING BEKAK - 2024

III - ERAKUNDEAREN DESKRIBAPENA

1. DESKRIBAPENA

Izena osorik:	
Izen laburtua:	IFZ:
Eratze-data:	
Helbidea:	
Posta-kodea:	Udalerria:
Lurralde Historikoa:	
Telefonoa:	Faxa:
Helbide elektronikoa:	Web orria:

2. PROIEKTUA GARATZEN DIHARDUTEN ERAKUNDEKO PERTSONAK (aukerako betetzea):

Presidentetza:		
Sexua:	Izendapenaren data:	
Gerentzia:		
Sexua:	Karguaren izena:	
Proiektuko gainerako pertsonak:		
Izena:	Sexua:	Kargua:
Izena:	Sexua:	Kargua:
Izena:	Sexua:	Kargua:
Izena:	Sexua:	Kargua:
Izena:	Sexua:	Kargua:
Izena:	Sexua:	Kargua:

3. PROIEKTUA GARATZEKO ERAKUNDEAK DITUEN BALIABIDE MATERIALAK:

.....

.....

.....

.....

.....



II. ERANSKINA

GLOBAL TRAINING BEKAK - 2024

IV.- PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

1. EGIN BEHARREKO EKINTZEN KRONOGRAMA:

	Data

2. PROIEKTUAN SARTUTAKO EKINTZEN AURREKONTU OSOA:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

3. EMAN BEHARREKO PRESTAKUNTZA PLANA:

Ordu kopurua	
Edukiak:	



II. ERANSKINA

GLOBAL TRAINING BEKAK - 2024

V- PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

OSATU:

- III. ERANSKINA - ESKAINITAKO PRAKTIKA BAKOITZAREN XEHETASUNA.
- IV. ERANSKINA - ESKAINITAKO PRAKTIKEN LABURPEN KOADROA.



III ERANSKINA

PARTE HARTZEKO ESKABIDEA: GLOBAL TRAINING PROGRAMA – PRAKTIKARI BURUZKO INFORMAZIOA

PRAKTIKAREN ERREFERENTZIA: (Sartu IV Eranskinean praktika identifikatzen duen kode edo zenbaki bera)

INFORMAZIO KORPORATIBOA	
Enpresaren/erakundearen izena	
IFZ	
Harremanetarako pertsona	
Legezko ordezkaria	
Kokapena	Herrialdea
	Hiria
	Helbidea
Sektorea	

PRAKTIKARI BURUZKO INFORMAZIOA	
Hartuko den bekadun-kopurua	
Departamentua (Bekadun bat baino gehiago eskatuz gero, adierazi bakoitzak zer departamentutan lan egingo lukeen)	
Proiektu/jardueraren deskribapena (Bekadun bat baino gehiago eskatuz gero, adierazi bakoitzak zer projektutan/jardueratan lan egingo lukeen)	

POSTURAKO ESKATUTAKO GAITASUNAK	
Nahi diren profilei buruzko informazioa (Ikasketak, aurretiko eskarmentua, hizkuntza, beste trebetasun batzuk...)	
Iruzkinak	

2024ko apirilaren 25a, osteguna

**BEKAREN LUZAPEN GEHIGARRIARI BURUZKO AURREAKORDIOA**

_____ jaunak/andreak, _____ IZK duen eta
 _____-(e)n dagoen _____
 _____ enpresaren/erakundearen ordezkari moduan, adierazten du
 _____ enpresak/erakundeak Global Training programako bekadunaren
 egonaldia luzatzeko konpromisoa hartzen duela, honako epe honetan:

__ hilabete

Luzapen gabe

enpresan/erakundearen, 6 hilabeteko beka batek hasiera batean estalitako epea normaltasunez eta egoki betez gero. Denbora gehigarri horretan, aseguruaren kostua bekaren luzapenez arduratuko den enpresak/erakundeak ordainduko du. Horrez gain, enpresak/erakundeak aukeratu ahal izango du bekadunari hilean ordainduko dion diru-kopurua, kontuan hartuta kopuru hori mantenu- eta ostatu-gastuetarako erabiliko dela.

Bekaren diru-zuzkidura bera

Beste kopuru bat _____

Luzapen gabe

ENPRESA/ERAKUNDEA	SINADURA	DATA
ARDURADUNA:		

2024ko apirilaren 25a, osteguna

**ANNEX III****APPLICATION FORM: GLOBAL TRAINING PROGRAMME – INTERNSHIP INFORMATION****INTERNSHIP REFERENCE:** *(Introducir mismo código o numeración que identifique la práctica en el Anexo IV)*

CORPORATIVE INFORMATION	
Name of the company/organization	
Tax Number	
Representative	
Contact person	
Location	Country
	City
	Address
Sector	

INTERNSHIP/PLACEMENT INFORMATION	
Number of trainees to host	
Department / Area where the intern will be working (In case you want more than 1 trainee, indicate the different departments where they will work)	
Description of project/activities (In case you want more than 1 trainee, indicate the different project/activities on which they will work)	

COMPETENCES, SKILLS and EXPERIENCE REQUIREMENTS	
Requested profile(s) information (Studies, previous experience, language skills, other skills...)	
Other commentaries	

2024ko apirilaren 25a, osteguna

**PRELIMINARY AGREEMENT CONCERNING INTERNSHIP EXTENT**

_____ representing _____ company/organization, with
Tax Identification Number _____ and located in
_____, declares that the company/organization agrees to extend the
internship period corresponding to the Global Training trainee's program for the time indicated
below:

- __ months
- Without extent

at the company/organization, provided that a satisfactory development of the internship during
the initial 6 months period has been given. For this extend period, insurance cost will be paid by
the company/organization. Likewise, the company/organization can choose the economic
endowment that will pay to the trainee, taking into consideration that it will be used for
accommodation and maintenance.

- Same economic endowment
- Other amount _____
- Without extent

COMPANY/ORGANIZATION	SIGNATURE	DATA
REPRESENTATIVE:		

2024ko apirilaren 25a, osteguna



V. ERANSKINA

ESKAINITAKO PRAKTIKEN LABURPEN-KOADROA

PRAKTIKAREN ERREFERENTZIA	BEKA EMATEN DUEN ENTITATEA	ENPRESA EDO ERAKUNDEA	BEKA-KOPIURUA	ENPRESAREN TAMAINA (ETE / ETE EZ)	EUSKAL HERRIKOIA, ESTATUKOIA EDO ATZERRITARRA	SEKTorea	RIS 3 (BAI / EZ)	HELMUGA-HERRIALDEA	HELMUGA-HIRIA	LAN-EGITASMOA	TITULAZIOA (UNIBERTSITATEKOA / LH)	TITULAZIOAREN DESKRIBAPENA	LUZAPEA (1,2,3,4,5 edo 6 HILABETE)	ERRESERBAKO PRAKTIKA (BAI / EZ)